

## Asier eta Aimar Olaizola pelotariak zabalduko dute 'Txotx' garaia

■ Sagardo garaia igandean hasiko da, eta plazan egingo da 'Txotxa' irekitzeko ekitaldi ofiziala ■ Ekitaldi horretan, Goizuetako herriari omenaldia egingo zaio ■ Bazkarirako sarrerak salgai daude.

ORAIN artean ez bezala, aurtentzen Txotx garaia inaugurazio ofiziala izango du Hernanin. Asier eta Aimar Olaizola pelotari goizuetarrek zabalduko dute denboraldia datorren igande goizean, Gudarien plazan egingo den ekitaldian. Inaugurazioa sagardotegi, tabernari, *Berriak*, *Tolare Kofradia* eta *Kaxko Elkartek* antolatu dute, Udalaren laguntzarekin.

### Goizuetari omenaldia

Sagardo denboraldiari hasiera emateaz gain, ekitaldi horren helburua bada beste herriekin elkartu eta omenaldia egitea ere, *Hernani Txotxeko* antolatzaileek Kronikari adierazi diotenez. Goizuetak eta Hernanik harreman handia izan dute aspalditik, eta aurtentzen Goizuetako herriari egingo zaio omenaldia. Horretarako, bi pelotariak ez ezik, Goizuetako Udaletxeko ordezkariak Hernanin izango dira igandeko ekitaldian.



Asier eta Aimar Olaizola pelotariak amorratuak dira ehizean. (Arg: Argia)

### Goizeko 11:30etan hasita

Txotxa zabaltzeko ekitaldia goiz partean egingo da eta gero herri bazkaria izango da Elorrabi sagardotegian. Jaialdia 11:30etan hasiko da eta txalapartak berotuko du au-

rrena giroa. 11:45etan, bertsolariak saio motz bat egingo dute eta 12:00etan Goizuetako herriari omenaldia egingo zaio. Aurrena, Goizuetako ordezkariak oroigarria emango zaie eta ondorenean Olaizo-

latarrek txotx egingo dute, denboraldiari hasiera emateko.

Gero, sagardoa eta pintxoak izango dira. 14:00etan bazkaria egingo da Elorrabin. Txartelak salgai, *Bodega, Aralar, Kitto* eta *Txilin*. □

## Hernaniko gizonetako bati 6 urteko kartzela, biolazioagatik

R.E.S hernaniarrari 6 urteko kartzela zigorra jarri dio Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak pertsona bat biolazioagatik, eta kartzela zigorraz gain biktimari 3.005 euroko indemnitazioa eman beharko dio egindako kalte fisiko eta psikologikoagatik. Juzioan, gizonetako ukatu egin zuten akusazio guztiak eta baita egun horretan pertsona hori ikusi izana ere. Magistratuak biktimaren deklarazioan eta forensearen txostenean oinarritu dira epaia emateko. Sententzia ez da oraindik firmea. □

### IPUINEZ IPUIN ERAKUSKETA

## Bihar Euskadi Irratia umeekin Biterin

GALTZAGORRIK jarritako ipui erakusketa oso harrera ona izaten ari da eta ume asko erakarri ditu. Erakusketa arratsaldean dago publikoarentzat zabalik, baina, goizetan ekitaldi bereziak antolatu dituzte ikas-tetxeetako umeentzat. Denera, 12 saio egingo dituzte, eta saio bakoitzean aurrena erakusketa ikusten dute, eta gero ipuiak entzun. 150 ume inguru pasako dira hilabetearen. Bihar goizean, Euskadi Irratia etorriko da Biterira, erakusketa ezagutu eta umeekin hitz egitera. □

## Poesia eta bideo foruma AEKn

AEK-k poesia emanaldia eta bideo foruma antolatu ditu aste honetarako. *Hitzak datoz ate joka* izeneko poesia emanaldia abenduan zen egitekoa, baina, orduan atzeratu egin zen eta gaur arratsaldean egingo da. Emanaldia irekia da eta herritarrak arituko dira poesia irakurtzen, musikaz lagunduta. Jendeak izango du poesiak eraman eta han bertan irakurtzeko aukera ere. Ekitaldia AEK-ko bideogelan da (Larramendi 11), gaur 20:00etan.

Bestalde, ostiralean bideo foruma egingo da: *Amanece que no es poco* filma ikusi eta pelikulari buruzko eztabaida. AEK-k bi ekitaldietara joateko gonbidapena egin die hernaniar guztiei. □

## Zaborrei buruzko plan integrala, gaur

SAN Markos Mankomunitateak bilera deitu du gaurko Hernanin hondakinei buruzko plan integrala azaldu eta eztabaidatzeko. Planak 2016 garren urtera bitarteko hiri-hondakinei buruzko politika definitzen du eta hiru helburu nagusi proposatzen ditu epe horretarako: zabor gutxiago sortzea, % 41 berziklatzea, eta % 55 erraustea, energia sortzeko. Bileran, gaur 19:00etan Biterin. □

## Anjel Pikabeari 9 urteko kondena jarri diote

ANJEL Pikabea Ugalde hernaniarrari 9 urteko kartzela zigorra jarri dio Pariseko auzitegi batek, "helburu terroristak dituen gaizkile talde batekoa" izateagatik.

Anjel Pikabearekin batera, beste 10 euskal herritar kondenatu dituzte. Frantziako Poliziak 2000ko irailean atxilotu zuen Pikabea Iparraldean, ustez ETako logistikaren kontra egindako operazioan. □

### ERREMONTA

## Altuna I-Eizagirre/ Iñigo-Lizasok itxiko dute txapelketako aurreneko fasea

BINAKAKO txapelketa aurrera dioa eta bihar jokatu da lehenengo faseko azkeneko partidua Galarreta Jai Alai frontoian. Altuna I-Eizagirre oso txapelketa txukuna egiten ari dira eta ostegunean Iñigo eta Lizasoren kontra jokatu dute, jaialdiko bigarren partidua.

Biharko erremonte jaialdian beste hiru partidu ere izango dira Galarretan, 16:00etan: Iribarren-Aizpurua/ Matxin III-Etxeberria II; Zeberio II-Auzmendi/Altuna II-A. Le-kunberri; eta Agirresarobe-Ekiza/ Bereziartua-Badiola. □

SAN OSO NATEGIA

Leku atsegina      Otordu atseginerako

Martindegi auzoa  
943 33 15 72  
943 55 32 60

JATEXEA

San Sebastian bezperako menu berezia:

*Bellota urdaiazpikoa*  
*Xapoa eta ganbekin entsalada*  
*Almejak marinera erara*  
*Vichysoice*  
*Xapua refritoarekin*  
*Solomilloa plantxan guarnizioarekin, Postre degustazioa*  
**Edariak:** *Bezegin Crianza, Chivite rosado, ura eta Cava*

47 euro + %7ko BEZ  
eta jo tanborrak....

ETXE ONENAK. S.A.

**GARAJE ITXIAK**  
**'OBLATOS'ETAN**  
**SALGAI**

Informatu eta saldu:  
☎ 943 33.22.37

Hasi dira **MERKEALDIAK**

**YONE**  
boutique

Kale Nagusia 63  
-Hernani-  
Hipodromo etorb.  
-Lasarte-



Jubilatu Etxeko Asanblea. 2002an bi egin behar izan ziren lehendakari kandidatorik ez zelako.

## Jubilatu Etxeak otsailaren 4an egingo du Urteko Asanblea

■ Sei puntuko gai ordena dago; bat lehendakari berria aukeratzeari dagokiona.

JUBILATU Etxeak datorren hilaren 4an egingo du Urteko Bazar Orokorra. Asanbleako gai ordenak 6 puntu ditu eta aurten ere lehendakari berria aukeratzeari egokituko da. Berez, Junta bi urtetarako aukeratzeko da. Baina, iaz aurreneko asanblean ez zen inor aurkeztu eta orduan Goio Irazusta eta Florian Martinek bien artean hartu zuten lehendakari kargua, baina, urtebeterako.

**Balantze ekonomikoa tabloian** Asanbleako beste puntu garrantzitsuak dira 2002ko balantze ekonomikoa eta Patronatuko buruen eta Jubilatu Etxeko lehendakariaren interbentzioa. Antonio Alfaro Jubilatu Etxeko idazkariak adierazi du sozio guztiek tabloian daukatela balantze ekonomikoa, eta horretaz gain, asanblearako zitzazioa eta gai ordena ere bai.

Otsailaren 4an, asteartea, egingo den asanbleak, beti bezala, bi konbokatoria izango ditu: aurrenekoa arratsaldeko 16:00-etan da eta bigarrena 16:30etan.

**Hernaniko elkarte haundiena** Jubilatu Etxea da gaur egunean Hernaniko elkarerik jendetsuena, eta aktibitate gehiena antolatzen dituenetakoa ere bai. Jubilatu Etxeak 2.500 sozio inguru ditu. □

### Argazkigintza ikastaroa Biterin

BITERI kultur etxean zabalik dago matrikula argazkigintzan sakontzeko ikastaroan apuntatzeko. Ikastaroa otsailaren 10etik maiatzaren 28-ra izango da, astean bi egunetan: astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara. Izen emateko epea urtarrilaren 17 arte da, ostiral honetara arte.

Argazkigintzan sakontzeko ez ezik, hastapeneko ikastaroa ere egiten da Biterin. Ikastaro horretan 20 pertsona ari dira ikasten. □

### Chillida-Leku museoa Urrezko Tanborrik gabe

DONOSTIAN dezenteko saltsa darabiltzite Urrezko Tanborraren, eta azkenean Hernani ere harrapatu du tartean. Odon Elorza Alkateak sari hori *La Oreja de Vangogh* taldeari ematea proposatu zuen. Behar adinako babesik lortu ez, ordea, eta Urrezko Tanborra Hernaniko Chillida-Leku museoari ematea proposatu zuen. Azkenean, saria inori ez zaio emango eta Chillida-Leku Tanborrik gabe geldituko da. □

### ZENBAIT GAZTE TALDEK ANTOLATUTAKO EKITALDIAK



Igandean pelota desafioak jokatu zituzten Hernani eta Aranoko pelotariek.

### Palaz hernaniarrak txapeldun eta eskuz aranoarrak

ASTEBURUAN zenbait ekitaldi erreibindikatibo egin dira gazte talde batzuk antolatuta. Igande goizean, pelota desa-

fioak egin ziren. Palaz, Hernanik 25-14 irabazi zion Ereñotzuri; eta eskuz, berriz, Aranok 22-20 irabazi zion Her-

naniri. Igande arratsaldean, berriz, gazteek presoan argazki eta helbideak jarri zituzten herrian barrera. □



Iñaxio Aierbe eta Gorka Gomez, Gadaffi taberna berrituan.

## Sukaldaritza eta diseinoa Gadaffi tabernan

GADAFFI taberna iazko azaroan zabaldu zuten, erabat berrituta. *Andre kale* 35k egin dako diseinolari, ordea, oraintxe eman dizkiote azkeneko ikuituak. Gorka Gomez portuko sukaldari gaztea da sukaldeko buru eta *cocina fusion* bezela ezagutzen dena egiten du Gadaffin: sukaldaritza tradizionala, baina, era berri batean prestatuta. Gorka Gomez Irizarren eskolan ikasia da, eta Irungo *Pasteleria Brasil* eta Donostiako *Astelehenan* ibilia. Gero, bi urte egin zituen Pekinen hemengo sukaldaritza egiten eta orain Izpizua kaleko taberna du erronka berria.

Portuko sukaldari gazteak menu aukera handia du, baina, berezienak hautxek dira: *gazta entsalada*, *bakailo konfitatua*, *karrillerak foie* eta *rabioliarekin* eta *gazta tarta berezia*. Degustazio menua ere badu, mahai guztiarentzako.

Karta ez ezik, gaurtik aurrera Gadaffin menua ere emango dute astelehenetik ostiralera, 9 eurotan.

Gadaffi berriak, pintxo aukera zabala ere badu, eta larunbatetan promozio bereziak egingo dituzte. Astelehen gauean egoten da itxita, eta barra zerbitzua goizeko 11:00etatik aurrera zabalik dago egunero. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Gauez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

### IRAGARKI MERKEAK

Lizeaga kale inguruan GARAJEA erosiko genuke. Deitu: 609 543 900

Emakume bat behar da adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak: 943-553766 (20:00etatik aurrera deitu)

## JAUREGI JATETXE - ERRETEGIA



Igandea, abenduaren 19an.  
San Sebastian bezperako afaria  
MENUA: 62 euro (%7ko BEZ barne)

- |                                  |                                  |
|----------------------------------|----------------------------------|
| <i>Ataren Foiea</i>              | <i>Edariak</i>                   |
| <i>Xapua almejekin</i>           | <i>Etxeko postreak</i>           |
| <i>Langostinoak plantxan</i>     | <i>Kafea eta likoreak</i>        |
| <i>Porru pastela</i>             | <i>Cava</i>                      |
| <i>'Lenguaua' plantxan</i>       | <i>Kotiloi poltsa</i>            |
| <i>Solomiloa guarnizioarekin</i> | <i>Goizaldera Baratzuri zopa</i> |

TRAKETS taldearekin dantza  
Tlfnoak: 943 550 034 - 943 330 424  
Jauregi Bailara - HERNANI